2020 • EKAINA

# abballarri

## EGAPE IKASTOLAKO BULETINA

EGAPE, URNIETARRON IKASTOLA PUBLIKOA

## FAMILIEN FORMAZIOA EGAPEN / FORMACIÓN PARA LAS FAMILIAS EN EGAPE

*En Egape Ikastola queremos dar especial importancia a la formación de las familias. A todos y a todas nos ayuda la adquisición de recursos para dar respuesta eficaz a la educación integral de nuestros hijos e hijas, de nuestros alumnos y alumnas. Así, con el objetivo de ayudar a las familias en su labor educadora y ofrecerles recursos y consejos útiles, hemos organizado diversas charlas a lo largo del curso.*

*Hemos tenido en cuenta las propuestas de mejora recibidas el curso pasado, y por eso, en lugar de hacer las sesiones bilingües, este año las hemos realizado en un solo idioma, alternando el euskera o el castellano, con el fin de agilizar la dinámica de las sesiones. A la hora de organizar la formación, en todo momento hemos tenido en cuenta las inquietudes y demandas de las familias, y por ello las profesionales seleccionadas tienen experiencia en la orientación de las familias.*

*A pesar de haber organizado una amplia oferta para este curso 2019-2020 con motivo del Covid-19, se han suspendido las tres últimas charlas.*

Egape Ikastolan familien formazioari berebiziko garrantzia eman nahi izaten diogu. Guztioi elkarlanean, seme-alaben, ikasleen heziketa integralari modu eraginkorrean erantzuteko baliabideak eskuratzea lagungarria zaigu. Hau honela, familiei hezitzaile lanetan laguntzeko eta baliabide eta aholku erabilgarriak eskaintzeko helburuarekin ikasturtean zehar hainbat hitzaldi antolatu ditugu.

Iazko ikasturtean jasotako hobetze proposamenak hartu ditugu kontuan eta horregatik, saioak elebidun egin ordez, aurten txandakatuz, euskaraz edota gaztelanian soilik egin ditugu, saioen dinamika arindu nahian. Formazioa antolatzeko garaian, uneoro familien kezka eta eskaerak izan ditugu kontuan eta horregatik aukeratutako profesionalak ere familien orientazioan esperientzia dutenak izan ditugu.

2019-2020 ikasturte honetarako eskaintza zabala antolatu arren Covid-19 dela eta, azkeneko hiru hitzaldiak bertan behera geratu zaizkigu.

| JARDUERA | NON - NOIZ | ARDURADUNAK |
|---|---|---|
| **Eki digitala**<br>**DRIVE (DBH 1)** | **22** • Urria / octubre<br>**17:00** • Ikastolan/ en la Ikastola (Azkorte) | **Nekane, Amaia**<br>euskara-castellano |
| **Komunikazio ez bortitza**<br>Comunicación no violenta | **24** • Iraila / septiembre<br>**17:00** • Lekaion/ en Lekaio | **AGIPAD**<br>euskara |
| **Alkoholaren kontsumoaren prebentzioa**<br>Prevención del consumo del alcohol | **24** • Azaroa / noviembre<br>**17:00** • Lekaion/ en Lekaio | **Nerea Mendizabal**<br>castellano |
| **Pertsona zein kideen arteko harreman osasuntsuak**<br>Relaciones saludables entre personas e iguales | **22** • Urtarrila / enero<br>**17:00** • Lekaion/ en Lekaio | **Baikara**<br>euskara |
| **Komunikazio estrategiak eta gatazken ebazpena**<br>Estrategias de comunicación y resolución de conflictos | **16** • Martxoa / marzo<br>**17:00-18:30** • Lekaion/ en Lekaio ⚠ | **Baikara**<br>castellano |
| **Sare sozialak egoki erabil daitezke?**<br>¿Se pueden utilizar las redes sociales correctamente? | **28** • Apirila / abril<br>**17:00-19:00** • Ikastolan/ en la Ikastola (Azkorte) ⚠ | **Baikara**<br>euskara |
| **Nola lagundu gure seme-alabai emozioak adierazten eta frustrazioa jasaten** / Cómo ayudar a nuestros hijos e hijas a expresar emociones y gestionar la frustración | **12** • Maiatza / mayo<br>**17:00-18:30** • Lekaion/ en Lekaio ⚠ | **Baikara**<br>euskara |
| | ⚠ COVID-19 dela eta bertan behera / suspendida por COVID-19 | |

# EGAPE KRISIALDIAN ERAGINKORTASUNEZ

Covid-19 izurritearen ondorioz  ikastetxeko ateak egun batetik bestera itxi behar izan genituen ikasturte erdian. Krisi honek ezinbestean egoera berrirra egokitzea behartu gintuen hezkuntza komunitateko kide guztioi, gure etxeak lan egiteko leku bihurtuz.

Egoerak horrela eskatuta adin ezberdinetako ikasleen beharrei erantzuteko baliabide berriak sortu ditugu eta metodologiari dagokionez ere aurretik erabiltzen genituenaz gain teknologia berrietan oinarritutako hainbat baliabide erabili ditugu.

## Haur Hezkuntza

Ikasleei etxean egiteko proposamen desberdinak luzatu dizkiegu korreo elektroniko bidez: ipuinak, abestiak, asmakizunak, errezetak, eta esperimentuak, besteak beste. Honen haritik, site bat sortu dugu proposamen guztiak familien eskura jarriz.

Ikasle eta familia bakoitzarekin telefono bidezko deiak egin ditugu euren egoera ezagutu eta bide batez, edozertarako gure prestutasuna azalduz. Bestalde, talde harremana mantentzeko asmoz, bideoak osatu ditugu ikasleei ikastolan edo etxean ateratako argazkiekin eta bideo-deiak ere antolatu ditugu ikasleekin banaka, talde txikitan eta nahi dutenerako bideo-dei irekiak ere antolatu ditugu. Era berean, irakaslearekin kontaktuan jarraitzeko, ikasleei, hainbat grabazio helarazi dizkiegu mezuak bidaliz, ipuinak kontatuz, asmakizunak botaz eta eskulanak proposatuz.



## Lehen Hezkuntza

Nork esan behar zigun Iñauterietan, martxotik aurrera gure saioak etxetik izango  zirela!!! Baina martxoaren 13ak egoera berri baten aurrean jarri gintuen. Zer egin? nola egin? ordenagailua? kamera? audioa? wifia? non kokatu? ordura arte egin gabeko galderei erantzuna bilatzen hasi behar izan genuen...azkar eta ondo.

Adinaren arabera teknologiarekin ikasleek duten autonomia maila desberdina denez, ziklo bakoitza egokitu behar izan dugu egoera horietara. Irakasleak saiatu gara zailtasunak eta laguntza behar duten ikasleengana iristen eta ez dugu ahaztu nahi familien ahalegina. Irakasleriaren arteko koordinazioa ere egoera berrira moldatu behar izan dugu eta  gure eginahalak eman dituen fruituak ikusiz pozik gaude.

# ANTE LA CRISIS, RESPUESTA EFICAZ

*La epidemia provocada por el Covid-19 obligó, de forma inesperada y en mitad del curso académico, a cerrar las puertas del centro escolar. Ante esta crisis tuvimos que adaptarnos a las nuevas condiciones laborales convirtiendo nuestras casas en habitual centro de trabajo.*

*Además hemos tenido que desarrollar nuevos recursos didácticos para dar respuesta a las necesidades de un alumnado que abarca edades muy dispares y adaptar nuestra actividad a las nuevas tecnologías.*

## *Educación Infantil:*

*Hemos facilitado al alumnado diferentes propuestas para realizar en casa con cuentos, canciones, inventos, recetas y experimentos que se han recogido en un site  y se ha puesto a disposición de las familias.*

*Nos hemos comunicado telefónicamente con el alumnado y sus familias para conocer la situación y mostrarles nuestro apoyo. Por otro lado, con el objetivo de mantener la relación de grupo, hemos elaborado vídeos con fotos del alumnado en la ikastola o en casa. Hemos realizado videollamadas individuales y en pequeños grupos y ofrecido videoconferencias abiertas y con el fin de mantener el contacto con el profesorado, hemos enviado al alumnado grabaciones con diversos mensajes.*



## *Educación primaria*

*¡¡¡Quién nos iba a decir que a partir de marzo nuestras clases iban a ser desde casa!!! Pero el 13 de marzo nos encontramos ante una nueva situación. ¿Qué hacer? Tuvimos que empezar a buscar respuestas a cuestiones con las que nunca antes nos habíamos enfrentado... rápido y bien.*

*Dado que el nivel de autonomía del alumnado con las nuevas tecnología es diferente en función de la edad, cada ciclo ha tenido que adaptarse a las características del mismo y el profesorado hemos respondido a las necesidades del alumnado. Asimismo, hemos adaptado la coordinación del profesorado a las nuevas circunstancias.*

## Bigarren Hezkuntza

Bigarren Hezkuntzan urteak dira baliabide teknologikoak txertatuta ditugula gure ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan (IKT eredu maila aurreratua 2012-2013). Hori dela eta, egoerak gurean ez du arrakala digitalik eragin, 1. eta 2. mailako ikasle guztiek dispositibo pertsonala dutelako eta 3. eta 4. mailakoentzat ikastolak, beharren arabera, haien esku jarri dituelako. Daukagun esperientziaz baliatu gara eskola ez presentzialak emateko Google Suiteko baliabideak (drive, classroom, hangout, meet…) eta liburu digitalak erabiliz. Honetaz gain, bideokonferentzien bidez ikasleekin lanean aritu gara irakasle eta ikasleen arteko hartuemana bermatuz. Gainera, ikaslearen heziketa integrala kontuan hartuz, jarduera bereziak sortu ditugu autoestimua indartzeko, familia arteko harremanak eta emozioen kudeaketa bideratzeko konfinamendu garaian.

Familiekin ohiko harremana mantendu eta askotan areagotu dugu ikasleen jarraipena ziurtatuz. Aipatu, 4. mailako tutoreek eta orientatzaileak familiekin bideokonferentzien bitartez burutu dituzten orientazio aholkuen saioak.Bestetik, zuzendaritza eta irakasleen arteko koodinazioa ere bideokonferentziaz burutu dugu.

## *Educación Secundaria*

*Hace años que los medios didácticos tecnológicos están integrados en el proceso de enseñanza-aprendizaje de la etapa de Secundaria(TIC nivel avanzado 2012-2013) por lo que el uso de las nuevas tecnologías en la práctica educativa diaria es ya algo habitual. Por ello, la situación no ha generado una brecha digital, ya que todo nuestro alumnado tiene a su disposición un dispositivo.La experiencia acumulada ha hecho posible la impartición de sesiones lectivas no presenciales utilizando tanto los libros digitales como aquellos recursos de Google Suite (drive, classroom, hangout, meet…). Además, el profesorado ha dado un gran salto cualitativo al utilizar el servicio de videoconferencia para mantener el contacto diario con el alumnado.*

*Para realizar el seguimiento del alumnado hemos mantenido una estrecha relación con las familias y los propios alumnos y alumnas. E incluso la orientadora y el tutor y la tutora de 4º curso, han podido realizar las sesiones de orientación por videoconferencia.Para asegurar la formación integral de todo el alumnado, se han creado actividades con el objetivo de intentar mejorar la autoestima del alumnado, facilitar la cohesión de los miembros de la familia, gestionar las emociones y las relaciones humanas durante el confinamiento.*







**Hori guztia dela eta, eskerrak eman nahi dizkizuegu Egapeko familiei, ikasleei eta irakasleei krisi egoerari aurre egiten erakutsi duzuen kemena eta borondateagatik.**

***Por todos estos motivos, debemos daros las gracias a las familias, al alumnado y al profesorado de Egape por hacer frente a esta crisis con semejante energía y tan buena voluntad.***



# 2019-2020 IKASTURTEARI ATZERA BEGIRA
















EGAPE IKASTOLA

Etxeberri 3/4, Urnieta.
943 00 95 58
egape@egape.eus

Lizardi kalea, 5, Urnieta.
943 00 92 75
egape@egape.eus

Azkorte z/g, Urnieta.
943 89 94 25
egapebhi@egapebhi.eus

Eskola Jasangarria Ziurtagiria

KALITATEA HEZKUNTZAN